


Nola kalkulatzeko da sakearen abiadura tenisean?

CHRISTIAN MESIANO-CC BY SA



OHIKO BIHURTU ZAIGU, tenis edo esku pilota partiduak telebistaz ikustean, pilota erraketatik edo eskutik ateratzean duen abiadura gure telebistako monitorean azaltzea.

Tenisean errekorra orduko 251 kilometrokoa da, eta Ivo Karlovic kroaziarraren esku dago 2011ko martxoaren 5az geroztik. Esan gabe doa abiadura hori sakeko unean neurtu zela, hori baita pilota azkarren higitzen den unea.

Abiadura neurtzeko radarrak erabiltzen dira; bina radar kokatzen dira jokalariei bakoitzeko eremuaren atzealdean, eta radarretako batek seinaleak emititu eta besteak jaso egiten ditu. Roland Garros lehiaketan, adibidez, seinale horiek mikrouhinak dira; radar batzuek mikrouhinak emititzen dituzte, eta horiek pilotarekin talka egitean, beste radarrek pilotak islatutako uhinak jasotzen dituzte. Bi uhin moten frekuentzien arteko aldea eza-gututa, abiaduraren datua lor daiteke.

Bide batez, adierazi beharra dago pistatik kanpora doazen pilotakadek, alegia, "txarrek", ez dutela errekor ofizialeko balio. ■



Tiroide minbiziaren zabalkunde ikaragarria Fukushiman

MAIZTASUN TXIKIAGOZ baldin bada ere, noizean behin Fukushimako berriak iristen zaizkigu. Une honetan, esan dezakegu astero aurkitzen dutela ihes egindako ur kutsatua, eta erradioaktibitatea ez dela jaisten ari, oro har. Baina batez ere datu batek eskuratu du gure arreta: gazteen artean tiroide minbiziaren prebalentziak izan duen hazkundeak. Japoniako prefektura gehienetan 15 eta 19 urte arteko 100.000 pertsonatik batek izaten du minbizi mota hori, baina Fukushimako prefekturan batez bestekoa 6.000 igurukoa da. ■



ADOLFONEDA.COM



Babeslea: iametza Interaktiboa

Primate zaharrenaren eskeletoa, hatz baten tamainakoa

Txinako Hubei probintzian orain 55 milioi urte bizi izan zen primate baten hezurdura aurkitu dute. *Archicebus achilles* espezieko primatearen hezurdura zazpi zentimetro luze da, isatsak hamahiru zentimetro ditu, eta pisua hogeigramokoa da. Laku batean, harkaitz baten barruan zegoen eskeletoa; oraingoan, topatu den primate baten hezurdurarik zaharrena da.

ttiki.com/51632
(Gaztelaniaz)

Altzairua merkeago eta ekologikoago ekoizteko sistema

Urtero 1.500 milioi tona altzairu ekoizten da munduan; haren produkzioak du CO₂ igorpenen %5aren erantzukizuna du. AEBetako ikerlari talde batek altzairua produzitzeko prozesu berria asmatu du, CO₂-ren ordez oxigeno purua igortzen duena.

ttiki.com/51634
(Gaztelaniaz)

Linfozito dopatuak minbizi-zelulak hiltzeko

ASCOren (AEBetako Onkologia Kliniko Elkarte) 2013ko batzarra egin berri da Chicagon. Jorratutako gaien artean, batek bereganatu du gure arreta: minbizi-zelulak hiltzeko, linfozitoak dopatzea. Antza denez, linfozito dopatuek era naturalean hil ditzakete minbizidun zelulak.

ttiki.com/51635
(Frantsesez)

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16